

**KRISTAU ESKOLAK ETA AICEK TUTORETZA-OSAGARRIA****TUTORE GUZTIEI KENDU NAHI DIETE ORAIN**

Aurreko inforrietan jakinarazi genuen bezala, Kristau Eskolak eta AICEk gatazka kolektibo bat jarri zuten abian joan den ikasturtearen amaieran tutoretza-osagarria arautzen duen hitzarmenaren 65. artikulua aldatzeko, osagarri hori ez ordaintzeko H.H.ko 1. zikloan eta LHn. Epaiketa azaroaren 16rako zegoen jarrita, baina azkenean abenduaren 2ra arte atzeratu zen, patronalaren abokatuen agenda-arazoengatik. Egun horretan, epaiketa baino lehen, sindikatuok elkarretaratzeak antolatu genituen epaitegien sarreran, hitzarmena betetzeko eskatuz.

Epaiketa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko lan-arloko 1. ikustaldi-aretoan egin zen. Epailleek, alderdiak entzun eta eztabaidatu ondoren, forma-akatsak zeudela erabaki zuten patronalek eskatutako auzian, negoziazio mahai batetik kanpo hitzarmenaren 65. artikulua idatzera aldatu nahi baitzuten. Lau egun balioduneko epea eman zitzaion beren demanda aldatu eta zuzenbidera egokitzeko. Ondoren, epaiketa-data berri bat ezarriko zuten.

Kristau Eskolak eta AICEk hala egin zuten eta orain "Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen 2017-2021 bitarteko Tutoretza Osagarriari buruzko Hitzarmen Kolektiboaren 65. artikulua **DEUSEZTAPEN PARTZIALA** deklaratzeko eta aitortzeko eskatu dute, eta horren aplikazioa Haur Hezkuntzako 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko hezkuntza-mailetara mugatzea, edo, subsidiarioki, hitzarmen horren 65. artikulua **GUZTIZKO DEUSEZTAPENA**". Epaiketa otsailaren 15erako aurreikusita dago.

STEILASentzat onartezina da Patronalaren aurreranzko ihesaldi hori; izan ere, indarrean dagoen hitzarmen baten artikulua bat epaitegi batean aldatzea ezinezkoa dela jakinaren gainean egonda, 65. artikulua osoa baliogabetzea nahi du.

Kristau Eskolak eta AICEk errespetu falta izugarria erakusten ari dira beraien ikastetxeetan tutoretza-lanak egiten ari diren irakasle guztiekin, eta ez dirudi ezer zuzendu dutenik aurreko gatazkan erakutsitako jarrera judizializatzailea eta konfrontatzailea. STEILASek ez du onartuko hitzarmena ez betetzea eta gure esku dauden baliabide guztiak jarriko ditugu hori eragozteko.

Zure enpresak nominan tutoretza-osagarria ordaintzen ez badizu eta, gainera, 2017tik tutoretza-osagarriari dagozkion atzerapenak jaso ez badituzu, jar zaitez harremanetan STEILASekin eta gure zerbitzu juridikoek honen inguruan emandako informazio guztia zehaztuko dizugu.

**Irakaskuntzan, STEILAS**[www.steilas.eu](http://www.steilas.eu)Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.euBizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.euGipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.euNafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eu